

# janzkera eta apaindura



barrenet 17. ikastunitatea

2. maila

**ikaslearena**

## **EGILEAK**

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
Parte-hartzailea: **Maidor Barandiaran** (AEK)  
Errealizazio didaktikoa: **Xabier Elortza** (HABEko teknikaria)  
**Alex Mungia** (HABEko teknikaria)  
**Agurtzane Maiz** (HABEko teknikaria)

© HABE 2004. ISBN: 84-95827-74-3

Legezko Gordailua: VI-370/04

Inprimaketa: Imprenta SACAL

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio AEKri materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Jose txo Sastre, Iñaki Gozalo, Pili Eraunzetamurgil eta Iosu Mitxelena.**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

- Gorputza apaintzeko grina. Aretxagazeta aldizkaria. 2001-01-13.
- Oinarritzko piercingak. Salud y medicina aldizkaria. 1997-07-17
- Lihogintza. Euskal Herritik saioko erreportajea. ETB

# janzkera eta apaindura

barrenet 17. ikastunitatea

2. maila

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

ikaslearena



## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

- |                               |   |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa              | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

### 2. Atazak

- |  |    |
|--|----|
| A. <b>Ataza:</b> Apain egon nahia          | 8  |
| B. <b>Ataza:</b> Piercing-ak eta tatuajeak | 13 |
| C. <b>Ataza:</b> Garai bateko jantziak     | 17 |
| D. <b>Ataza:</b> Gaur-biharko jantziak     | 22 |

### 3. Eranskinak

- |                        |    |
|------------------------|----|
| 1. Autoebaluazio-orria | 28 |
|------------------------|----|

## 1. LAN-EGITASMOA

Gaur egun apaintzeari eta janzteari garrantzi handia ematen bazaio ere, ez pentsa gaurko kontua bakarrik denik, eder egon nahia betikoa baita. Hori dela eta, ikastunitate honetan gizakiak, gaur eta antzina, janzteko eta apaintzeko dituen eta zituen ohiturei buruz arituko gara.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

### 1. SARRERA

- Ikastunitatearen aurkezpena.  
(6. or.)

### A. APAIN EGON NAHIA

- Gaiari buruzko hiztegia ezagutzea.
  - Narrazio bat berridaztea.
- Denborazko loturak baliatuz narrazio labur bat idaztea.  
(8. or.)

(ENTZ. / IRAK. / IDAZ. / GRA.)

### AUTOEBALUAZIO-ORRIA

(28. or.)

### B. PIERCING-AK ETA TATUAJEAK

- Entzundako testigantzak erreportaje moduan idaztea.
- Zehar estiloa eta estilo zuzena bereiztea.  
(13. or.)

(ENTZ. / IDAZ. / GRA.)

### D. GAUR-BIHARKO JANTZIAK

- Iritziak eta usteak igartzea.
- Iritziak eta gustuak adierazteko hizkuntza-formei erreparatzea.
- Egoera kontuan hartuta, nor bere iritziak eta gustuak adieraztea.  
(22. or.)

(ENTZ. / IDAZ. / MINTZ.)

### C. GARAI BATEKO JANTZIAK

- Erreportajeko ideia orokorrak eta xeheak bereiztea.
- Erreportaje bateko ideia nagusiak birkontatzea.
- Batua eta euskalkien arteko ezberdintasunez jabetzea.  
(17. or.)

(ENTZ. / IRAK. / MINTZ.)

## ATAZA: APAIN EGON NAHIA

- Geure burua apaintzen dugunean, usain ona eduki nahi izaten dugu. Horretarako, batzuek kolonia botatzen dute, eta beste batzuek perfumea. Baina, ba al dakizu zein alde dagoen bien artean? Jarri binaka eta erantzun.
  - Zer da kolonia?.....
  - Eta, perfumea?.....
  - Ba al dakizu nondik datorren perfume hitza, eta zer esan nahi duen?  
.....
  - Nola esango zenuke perfume hitza euskaraz?.....
- Orain entzun adituak esaten duena. Bat al dator zuek idatzitakoarekin?
- Gaur egun garrantzi handia ematen zaio gorputza zaintzeari eta eder egoteari, baina oraingo moda dela iruditzen zaizu ala aspaldiko kontua? Irakurri irakasleak emango dizun erreportajea ea zer dioen.
- Jarraian, erreportaje hori bera duzue baina, oraingoan, pasarteak desordenaturik daude. Hirunaka jarrita, ordena itzazue dagozkien zenbakiak jarrita.





## Izenburua: Betikoa da eder egon nahia

Aspaldiko kontua da aurpegia margotzea eta edertzea. Dena den, jaso ditugun idatzi garrantzitsuenek egiptiarrei buruz hitz egiten digute.

Greziako emakume aberatsak ere ez ziren atzera gelditzen, oso sarri pintatzen zuten bere ilajea. Zer esanik ez, hainbeste hauts, olio, irin batzuetan hondatu egiten zitzairen ditxosozko ilea. Indarra galdu, eta erori egiten zitzairen.

Garai bateko Egipton gizonaek ileorde beltzak jantzen zituzten, baita gorriak, urdinak eta berdeak ere. Eta ileordearen azpian kaskoa zuri-zuri izaten zuten; osasun-arazoengatik jokatzeko zuten horrela. Faraioen hilobietan, esate baterako, edergintzarako ukenduak eta henna-hautsak aurkitu zituzten.

Marco Valeriok ehun poto aipatzen ditu. Horrek esan nahi du garai hartan ere bazela nolabaiteko industria kosmetikaren inguruan. Greziako Korinto-n, adibidez, ukenduak pototan saltzen ziren eta Egipton, berriz, lurrin-ontziak dekoratu egiten zituzten errazago saltzeko.

Hondatutako ilea bere onera ekartzeko, erromatarren artean oso estimazio handia izan zuen ukendu batek; piperra eta arratoiaren gorotza zituen osagai, besteak beste.



Usain txarrak zirela eta Ovidio poetak eman zituen hainbat gomendio. Ovidio ez zen Egiptokoa baina kosmetika-gaiak jorratzen zituen eta jarraitzaile asko zituen: "Ars amandi" bere obran, esate baterako, aholkuak ematen dizkie emakume eta gizonaekoei.

Gorputzerako produktu horietaz gain, Cleopatra-ren garaian, zurezko eta marfilezko makiltxoak erabiltzen zituzten begiak edertzeko eta gizonak limurtzeko. Gaur egungo emakumeek, aldiz, khol lapitzak erosten dituzte horretarako.

Eta azkenik, esan faraioen hilobietan ez ezik Suhb-Ad erregina sumeriarraren hilobian ere aurkitu zituela Woolley arkeologoak hauts-ontzi kontxa modukoak, baita bekainak margotzeko orratzak ere, edo ukenduz betetako kaxatxoak, besteak beste.

Marco Valeriok hala esan omen zuen behin Mesalinari buruz: "Duen edertasun horren hiru laurdenak bere tokadoreko kaxatan daude sartuta. Gauero arropa eta hortzak kendu egiten ditu. Bere edertasuna era guztietako ehun pototan gordea dauka. Horren begitartea ez da berarekin oheratzen."

Gerora, erromatarrek beren errezetak egiterakoan, Greziakoak hartu zituzten eredu gisa. Germaniarren ilaje horaila ere oso gustukoa zuten, nahiz eta germaniarrak basatitzat izan. Hori dela eta, erromatarrek ile horia izateko esklabo galiar eta germaniarrei ilea kentzen zieten ileordeak egiteko, eta besterik ezean, lixibarekin garbitzen zituzten beren kaskoak.

Egiptiarrek desodoranteak ere bazituzten, baita zimurrak disimulatzeko ukenduak ere, edo ilea eta azala zaintzeko isurkiak. Gorputzean eztia, palmolia, olo-irina, astemearen esnea, Niloko lokatza eta abar zabalduz zaintzen ziren. Ezaguna da, Cleopatra-k izugarri estimatzen zuela astemearen esnea edergintzarako. Popea, Neron-en emaztea ere, oso esnezalea zen. Asto-saldoa zuen, behar zuenean esnea pronto izateko.

Emakumeei: "Egin kontu zuen gorputzei: ez dezatela usain txarrik bota, zuen bernak ez daitezela ilez josi... Ahoan usain gaiztoa duenak ez dezala baraurik dagoela berba egin..." Eta gizonezkoiei. "...Izan natural, hori da gizonaren dotorezia. Besteen aurrean txukun azaldu, hortzen zuria agerian. Azazkalak moztuta eraman, eta garbi.. Sudurzuloetako ileak ez daitezela bistan egon, eta zure ahoak ez dezala akerraren kiratsik izan".

Umore marroiarekin jarraituz, esan, erromatarrek hortzak zuritzeko pomez harriari haurtxoen txiza nahasten ziotela. Eta emakumeei bularrak sendotzeko, artearen azala, buztina eta ozpina nahasten zituzten, eta gero limoitara bota. Zenbat sufritu behar zuten apain egoteko; ez dago esaterik! Jakina, zenbaiten aldamenean ez zen giro izango, zorabiatzeko moduko kiratsa botako zuten batzuk.



- Ondoren, irakasleak banatu dizuen erreportajea irakurri, eta alderatu zuek jarritako ordenarekin.
- Erreportaje hori irakurri ondoren konturatuko zinen denbora-adierazleak ongi erabiltzeak garrantzi handia duela. Narrazio batean hiru atal ezberdin bereizten dira eta bakoitzak baditu bere denbora-adierazle jakinak . Ikus ditzagun, bada, horietako batzuk:

Narrazioaren hasieran	Tartean	Amaieran
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Duela X urte, hamarkada, mende,...</li> <li>- X urtean, hamarkadan, mendean,...</li> <li>- K.a. X urtean,...</li> <li>- K.o. X urtean,...</li> <li>- Antzina...</li> <li>- Orain (dela) X urte, ... hamarkada mende,...</li> <li>- Garai batean,...</li> <li>- Garai hartan,...</li> <li>- Urte haietan,...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Orduan, Ordu arteko, ...</li> <li>- X urte, hamarkada, mende geroago...</li> <li>- (...)ondoren, ...</li> <li>- X urtean, hamarkadan, mendean, ...</li> <li>- (ekintza) gertatu zenean,...</li> <li>- handik X urtera, mendera, ...</li> <li>- gertaera, ekintza, ... honekin batera...</li> <li>- Garai, aldi urte ... berean...</li> <li>- X urteaz geroztik,...</li> <li>- Gerora...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azkenaldian, ...</li> <li>- eta azkenik, ...</li> <li>- bukatzeko, ...</li> <li>- Azken urteotan...</li> <li>- Gaur egun, ...</li> <li>- Orain ordea, ...</li> <li>- Aspaldi honetan...</li> </ul>

- Hemen duzue aurreko narrazioaren jarraipena, baina bertatik denbora-adierazleak kenduta daude. Idatz ezazu hutsune bakoitzean zure ustez dagokion denbora-adierazlea.

.....urte, Grezian emakumezkoak jasmína edo lirio-alkoholetan bainatzen ziren, eta gorputzeko atal bakoitzak usain desberdina izaten zuen.

Kleopatrak, esate baterako, eskuak arrosa, azafran eta bioleta olioetan igurzten omen zituen, eta bere hankak berriz, almendra, ezti eta kanela lozioarekin.

.....gizonak, adibidez, naturaltasunaren aldekoak omen ziren, baina, hala ere erabiltzen zituzten lurrinak, beraien ilea edo arropa perfumatzeko.

..... idazkietan, bestalde, mendafina aholkatzen zuten besoak eta besazpiak lurrineztatzeko, oraingo desodorantearen pareko bezala. Bularrarentzat kanela, eta eskuentzat almendra-olioa aholkatzen zuten. Lurrina debekatzerá ere iritsi omen ziren....., gazteek gehiegi erabiltzen zutela eta.

....., erromatarrei ere, ikaragarri gustatzen omen zitzairen perfumea eta beren konkisten bidez, bainila, lila eta krabelin lurrinak zabaldu zituzten Europan barrera. Lurrin sortzaileen gremioak eratu ziren eta era guztietako loreak erabiltzen zituzten. Erromatarrek greziarrek baino gehiago erabiltzen zituzten lurrinak.

Neron enperadoreak adibidez, .....arrosa uraren moda zabaldu zuen eta ..... 180.000 euro gastatu omen zituen gonbidatuekin, bere jauregian antolatutako oturuntza batean. Eta bere emaztearen hiletan, berriz, lurrin egile arabiarrek urte osoan ekoizten zuten lurrin guztia adina gastatuta omen zuen. Azkenerako, bere mandoei ere lurrina botatzen omen zien.

....., sortu berri zen eliza katolikoa gehiegikeriatzat jo zuen eta alferrik galtze hau gaitzetsi zuen. Erromatarren inperioaren erortze-....., lurrina ere bere indarra galtzen hasi zen.


Batzuen iritzi .....ere zenbaiti debekatu beharko liokete hainbeste erabiltzea; izan ere, badira kolonia ura, perfumea, desodorantea, krema usaintsuak eta abar denak batera botatzen dituztenak.

Ikusten den bezala, .....eman izan zaie garrantzia usaiei, baina esan daiteke gero eta aukera zabalagoa dagoela, bai koloniatan, eta baita lurrinetan ere.

.....bada jendea kolonia edota lurrina belarriaren atzealdean botatzen duena, eta hori ez da oso egokia. Belarriaren atzealdean koipe asko dugu eta koipe hori izerdiarekin nahasten denean usain txarra sortzen da, eta horri kolonia edota lurrina gehitzen badiogu, are okerragoa da usaina.

Hori dela eta adituek, ....., zainak bistan dauden tokietan botatzea gomendatzen dute: eskumuturraren behe-aldean eta belauenen atzealdean.

....., esan beti ere hobe dela kolonia edo lurrin gutxi botatzea asko baino.



## 2. Atazak

# A

- Jarraian, binaka jarri eta alderatu egindako lana.
  - Berdin bete al dituzue hutsuneak?
  - Aurrez ikusi ez dugun forma berririk agertu al da? Zein?
  - Hutsuneren batean, aukera bat baino gehiago badagoela uste al duzue? Zeinetan?
- Orain, launaka jarrita, irakurri duzuen historiari buruzko eskematxo bat osatuko duzue, bertako ideia nagusienak aukeratuz. Eskema denez, esaldiak soilik idatziko dituzue, elkarren arteko loturarik ipini gabe:



Handwritten area with horizontal dotted lines for writing.

- Jarraian, bakarka, lotu eskemako puntuak horretarako dituzun denborazko formak baliatuz. Ez da derrigorrezkoa denak erabiltzea.



Handwritten area with horizontal dotted lines for writing.

- Irakasleak hiru egoera emango dizkizu. Hiru egoera horietatik gogokoen duzuna hartu, eta nahi dituzun datuak baliatuz idatzi narrazio bat.



Handwritten area with horizontal dotted lines for writing.

# ATAZA: PIERCING-AK ETA TATUAJEAK

## 1

- Ez dakigu noiz sortu zen horrelakoak egiteko ohitura, baina haragia bezain zaharra dela diote batzuk; zibilizazioa ezagutzen denetik omen dago, pentsa. Munduko tatuajerik artistikoenak Polinesiakoak izan dira betidanik, eta historiako piercing ikusgarrienak, berriz, bost mila urte baino zaharragoak diren tribuetan egiten zirenak. Zer iruditzen zaizu?
- Jarri binaka, eta hitz egin irudi hauei buruz.

Hitz egin



• Gogorak al dira irudiak?  
 • Zer iritzi duzu horrelakoak egiteari buruz?  
 • Piercing-ik edo tatuajerik ba al duzu?



- Orain, irakasleak banatuko dizuen erreportajea irakurri, eta taulan eskatzen diren datuak idatziz jaso. Baina aurretik, zein da zure iritzia ondoko galderari buruz?

Piercing-a edo tatuajea izatea arrunta al da gaur egun?.....  
 .....  
 .....



## Taula bete

Moda kontuak	Modan al daude tatuajeak eta piercing-ak?	Bai	Adina: Gorputzeko zein ataletan:
		Ez	Gonzalezen iritzia
Tatuajea, azaleko grabatua	Prezioari buruz: ZER		
	Tatuajearen balorazioari buruz: ZER		
	Betirako al dira?		
Piercing-ean garbitasuna beharrezkoa	Infekzio arriskuak noiz:		
	Infekzioak ekiditeko:		
	Materiala eta prezioa:		
Profesionaltasuna eta kalitatea	Beharrezkoa da profesional batek egitea arrazoi hauengatik:		

.....

- Orain, bikoteka jarri, eta alderatu zer jarri duzuen taulan.

## 2

- Bi taldetan banatuta, batzuek tatuajeari buruz esaten dena azpimarratuko duzue erreportajeon, eta besteek piercing-ari buruz esaten dena.

A taldea Elkarrizketatuak esan duena	B taldea Kazetariak idatzi duena

- Jarraian, elkarrizketatuak esaten duena eta kazetariak idatzi duena bereiziko duzue ondoko taulan.
- Binaka jarrita, talde bakoitzeko bana, aukeratu talde bakoitzean jaso diren bina aipamen: bi tatuajeari buruzkoak eta beste biak piercing-ari buruzkoak, eta idatzi ondoko taulan nork esan dituen adieraziz:

Elkarrizketatuak esandakoa	Kazetariak idatzitakoa	Nork esan du?

- Ondoren, idatzi lau aipamen horiek erreportaje moduan.



Area for writing the reportage, featuring a large orange background with horizontal dashed lines for text entry.



- Erreportajeetan zehar estiloa erabiltzea oso normala da. Norbaitek esan dituen esaldi hauek nola adieraziko zenituzke erreportaje batean zehar estiloa erabiliz?



Jende gehienak behar diren prebentzio guztiak hartzen dituela iruditzen zait.

Nik uste dut piercing-ak egiteko gero eta jende profesionalagoa dugula inguruan.

Tatuajeak gorputza ez duela hainbeste apaintzen uste dut.

Nire amonak etxetik bidaliko ninduke bat egingo banu.

Gaiztotzen bada, zer egingo dugu ba? Sendatuko da.

- Zer moduz moldatu zara?.....
- Testuan begiratu beharrik izan al duzu ariketa egin aurretik?.....
- Horrelako ariketa gehiago egin behar al dituzu ikasteko?.....

## 3

- Erreportajea irakurri ondoren, bi taldetan banatu, eta talde bakoitzak antzeko erreportaje bat idatziko du. Horretarako, gai berari buruzko bi euskarri izango dituzue:

**1.** Batzuek, piercing-ak eta tatuajeak eginda dituzten bi gazteri egindako elkarrizketa entzungo duzue.

Egingo duzuen erreportaje horretan, bi gazte horiek emandako informazioa erabiliz, txukun-txukun idatzi beharko duzue.

**2.** Besteek, piercing-ak ipintzeak ekar ditzakeen arriskuak biltzen dituen Salud y Medicina aldizkariko artikulua bat irakurgai izango duzue. Bertako datu garrantzitsuak ere erreportajerako baliagarri izango zaizkizue.

- Lehendabiziko zirriborroa hemen egin dezakezue.



.....

.....

.....

- Bukatzen duzueanean, izenburu egokia idatzi, eta, argazkirik sartu nahi izanez gero, kola hartu eta itsatsi.



## ATAZA: GARAI BATEKO JANTZIAK



"Euskal Herritik" izeneko erreportaje-saio bat ikusiko dugu garai batean jantziak nola egiten ziren ezagutzeko. Lihoaren hazia ereiten zenetik oihal bihurtzeraino jarraitzen zen prozesu bitxiaren berri izango dugu. Lihozko jantziei buruzko gustuak azalduko ditugu, eta garai hartako abesti ezagun batekin gozatuko dugu.

- O! Pello Pello! Kantu herrikoia abestuko duzue denen artean. Emakumezkoek, emakumeak esaten duena, eta gizonezkoek, gizonak esaten duena abestuz; elkarrizketa moduan abestuko duzue.

### Kantua:

*Neskak: O! Pello, Pello! Logale nauk eta jinen nizan ohera?*

*Mutilak: Irun ezan eta gero, gero, gero...*

*Irun ezan eta gero, gero bai.*

*Neskak: O! Pello, Pello! Irun diat eta jinen nizan ohera?*

*Mutilak: Astalka zan eta gero, gero, gero...*

*Astalka zan eta gero, gero bai.*

*Neskak: O! Pello, Pello! Astalkatu diat eta jinen nizan ohera?*

*Mutilak: Harilka zan eta gero, gero, gero...*

*Harilka zan eta gero, gero bai.*

*Neskak: O! Pello, Pello! Harilka diat eta jinen nizan ohera?*

*Mutilak: Jos ezan eta gero, gero, gero...*

*Jos ezan eta gero, gero bai.*

*Neskak: O! Pello, Pello! Josi diat eta jinen nizan ohera?*

*Mutilak: Argia dun eta, bihar, bihar, bihar...*

*Argia dun eta jinen haiz bihar.*



- Ba al dakizue nor den abeslaria?
- Abestiak lihoaren prozesuko pausuen aipamen bat egiten du elkarrizketa moduan. Zer informazio ematen digu? Ondoko galderari erantzunez, ea zenbat informazio lortzen duzuen.

- Emakumeak zer nahi du?

- Josi.
- Ohera joan.
- Gin bat edan.

- Pellok zer erantzuten dio?

- Lanean jarraitzeko agintzen dio.
- Logalerik ez duela.
- Irunera joateko.

- Azkenean oheratu al da?
  - a) Bai.
  - b) Ez. Bihar oheratuko da
- Hiru agindu horiek pausuz pausu jarraituz, zer lortzen dela uste duzue?
  - a) Arropa egiteko eta arrearako oihala.
  - b) Espartinak edo alpargatak.
  - c) Artilezko galtzerdiak.
- Pellok hiru agindu eman dizkio emakumeari. Zeintzuk?
  - a) Josi, astalkatu eta irun.
  - b) Irun, astalkatu eta josi.
  - c) Irun josi eta astalkatu.
- Asmatuko al zenuke hiru hitz hauen definizioa? Hiztegia behar al duzu?
  - a) Irun =
  - b) Astalkatu =
  - c) Harilkatu =
  - d) Josi =



- Bideoa ikusi aurretik, irakasleak lihoaren prozesuari buruzko azalpen orokor batzuk emango dizkizue.
- Jarraian, bideoa ikusiko dugu. Bertan, lihoa lantzerakoan bereizten diren hiru atalak aipatzen dira. Atal bakoitzean pauso jakin batzuk jarraitzen dira. Hona hemen pauso horien izenak, ea lekutzen dituzuen ondoko taulan:

Lihogintza	Harigintza	Ehungintza

- Ehungintza industrial
- Goruetan egin
- Lihoa jo
- Uzta bildu
- Lihoa beratu edo bigundu
- Lihoa txarrantxatu

- Harilkatu edo harildu
- Lihoa lehortu edo ihartu
- Lihoa sugastu edo ezpatatu
- Lihoa trangatu
- Hari matazak garbitu edo zuritu
- Lihoa erein

- Lihorekin hari matazak egin
- Ehungintza tradizionala
- Lihorekin hari matazak bereizi

- Prozesuan erabiltzen diren tresnak honezkero ezagutuko dituzu, ezta? Lotu itzazu tresnen izenak dagokien definizioarekin.



\* Egurrezko makilatxo bat, 80cm ingurukoa, punta aldera burutxo bat duena eta haria iruteko erabiltzen dena

txarrantxa

\* Liho landareari kanpoko azala kendu ondoren, orrazteko edo kardatzeko burdinazko orrazi antzeko bat

ehundegi

garrama

\* Ehuna egiteko makina. Zurezkoak izaten ziren eta lana eskuz eta hankaz egiten zen

gorua

\* Lixiba egiteko ontziak ziren

ezpata

\* Lihoari haziak bereizteko burdinazko orrazia

ardatza

\* Iruten ari den haria bihurtu eta biltzeko

tina

- Ondoren, lihoa lantzerakoan jarraitzen diren pausuak irakurriko dituzue laburtuta, bideoan agertu direnak. Baina pausuak desordenaturik daude eta ordenatu egin behar dituzue. Hiru taldetan banatu, eta bakoitzak atal batekoak ordenatuko ditu.

## Lihogintza

1. Liho-hazia eroin eta lihoa hazten zenean uzta biltzen zen. Soroan uzten zen lehortzen.
2. Hazia bereizi eta gero, linaputzuan edo erreka batean liho-sortak beratzen jartzen ziren. Bostetik hamar bat egunetara behar izaten zuten lihoak beratzen.
3. Segidan, trangaketa zetorren, kanpoko azal egurtsua apurtu egiten zitzaien eta landarearen barruko mintza agertzen zen.
4. Ondoren, liho-sortak garramatu eta hazia landaretik bereizten zen.
5. Hurrengo lana, Bizkaian ezpataketa eta Gipuzkoan sugasketa deitzen zutena zen; hau da, landarea egurrezko ezpata moduko batez jo behar izaten zen, lihoari azala erabat garbitzeko.
6. Jarraian, lihoa linaputzutik atera eta zelaian zabaltzen zen ihartzeko.
7. Ihartutako sortak linarrarian jo behar izaten ziren egurrezko mailu batzuez. Joaz, lihoari bere azal ustela askatu eta erori egiten zitzaion.
8. Hurrena, txarrantxa edo rastriloa pasa behar zen liho-hari gaia lortzeko; gero haria egiteko erabiliko zena. Txarrantxa ohol luze baten gainean jarritako burdinazko orrazia zen.



### Harigintza

1. Gainean trapu bat jartzen zitzaien pago-egurraren sutako hautsarekin, eta haren gainetik ur beroa botatzen zen matazak egosteko. Behetik isuritako ura balde batean jaso eta bota egiten zen.
2. Gero, horrela bildutako hariarekin matazak egiten ziren. Hari-mataza horiek garbitu egin behar izaten ziren, zuritzeko. Horretarako, matazak egurrezko tina batean sartzen ziren.
3. Azkenik, ehuna ehotzeko prest uzten ziren hari-pilotak. Matazak askatu, eta tira eginez zituen korapiloak askatu eta harilkatu.
4. Lihoa hari-gaia prest zelarik, haria egiten hasteko hari-gaia goruaren puntan kurioso bildu, goru-makila gerrian jarri, eta puntatik hari izpi bati tira eginez, eta honi eskuineko eskuaz bueltak eraginez, eta ezkerrekin izpiari tira eginez, txistuarekin lihoa eta behatzak bustiz, haria bilduz joaten zen ardatzean; iruten.



### Ehungintza

1. Hariak gurutzatuz egiten da ehuna.
2. Ehun-pieza amaitutakoan, bildu, eta jai egunen batean eramaten zuen bezeroaren baserrira; han, emakumearen aurrean neurtu, eta egindako lanaren ordaina jasotzen zuen ehuleak.
3. Haril nahiko batzen zituztenean ehundegira eramaten ziren ehuna egiteko.
4. Ehuleak hariak sailkatu eta hari berri honentzat egokia zen orrazia jartzen zion ehundegiari.
5. Gero, hari berriak, lehendabizi berdi-berdin ebaki, eta hari bakoitiak eta bikoitiak gora eta behera ibiliko zituzten eta orrazietatik pasako zituen ehuleak, pazientzia handiz.



- Talde txikietan bildu, eta hitz egin jardueraz galdetegiari erantzunez.
  - Zer moduz moldatu zarete pausuak ordenatzerakoan?
  - Gustatu al zaizue lihoa lantzeko prozesuaren berri izatea?
  - Zein zati gustatu zaizue gehien?
  - Izan al duzue zailtasun berezirik ariketa hau egiterakoan?
- Jatorrizko erreportajearen hitzun batzuek bizkaieraz egiten zuten. Entzun horietako baten pasarte labur bat eta, gero, irakurri. Euskara batura pasako al duzue?

Jaione Isazelaia:

Oso gaizki ikusita zeguan arreurako ehuna kanpotik ekartzea, hori ez zeguan ongi ikusita. Eta inoiz kanpotik ekartzen bazan, sekulako esamesak izaten ziren, eta hori ez zebe nahi izaten eta itten zebe erak egindako arixa. Gero, arrea, beste detaile bat izaten da arrea eurak eruaten zebe baserritara, erak ezkontzen ziren lekura. Arreo hori erak egindako oihalak edo prendak arek erak sekula ez zituzten erabiltzen. Erabiltze zebe aurretik etxe aretan zerenak eta euronak lagatzen zebe hurrengokoendako. Gero baitta esaten zan, ezkondu aurretik, itte zebela, iruten zebela arreorako arixa. Eta ezkondu ondoren (...).

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Oso ezberdinak al dira euskalkia eta batua?.....
- .....
- Ba al da ulertzen ez den zerbait?.....
- .....
- Ba al da aldatzen ez den zerbait?.....
- .....
- Nola ulertzen da errazago, irakurrita ala entzunda?.....
- .....
- Beste euskalkirik entzun al duzu inoiz? Non?.....
- .....

- Abestia berriro abestuko dugu. Bukatzeko, denon artean abestian aipatzen den gaiaz hitz egin.

# ATAZA: GAUR-BIHARKO JANTZIAK

- Kanean zabiltzala gaur egungo modari buruz galdetuko balizute, zer erantzungo zenuke?

Binaka jarri, eta erantzun ondoko galderari. Gero, hitz egin taldean gaiari buruz bakoitzak erantzun duena kontuan hartuz.

## Galdetegia

1. Modari jarraitzen al diozu? Modan dagoenari jarraitzen diozu ala zure moda propioa al daukazu? .....
2. Nola definituko zenuke zure jantzeko estiloa? .....
3. Denboraldi honetarako ezer erosiko al duzu? .....
4. Goizetan denbora asko pasatzen al duzu prestatzen edo apaintzen? .....
5. Zein kolore duzu gustukoena arropetan? .....
6. Lanegunetan eta jaiegunetan arropa desberdina erabiltzen al duzu? .....



- Kalera irten gara modari buruzko inkesta bat egitera, eta ondoko pertsona hauekin egin dugu topo :

**ANA ETA MIREN**

Bi emakumezko:  
Donostian erosketak egiten ari  
zirenak

**IKER**

Koadrilan solasean ari zen  
gazte bat

**INES**

Emakume bat:  
bankuan eserita eguzkia  
hartzen ari ziren koadrila  
batekoa

- Horietakoa nork uste duzu eman dituela erantzun hauek? Idatzi laukietan euren izenak

Moda aldatu edo ez, nire  
ustez, moda guk egiten dugu  
edo guk jartzen dugu, ezta?

Hainbeste ez dut ulertzen, baina nik uste  
dut kolore biziak direla udan ematen  
direnak. Eta beti bezala tela finak, azken  
urteetan linua oso modan dago eta aurten  
ere asko ikusiko dela pentsatzen dut.

Egia esan gustuko arropa  
janztea gustatzen zait, eta  
modakoa izan ala ez berdin  
zait, baina beno, modatik  
kanpoko ezer ez dudala  
janzten uste dut.

Nik behintzat ikusi eta gustatu egin zaidalako jarri nuen.  
Baina egia da gazte gehienak berdin janzten garela. Lehen  
gehiago bereizten zen, punkiak, pijoak, heviak,... Orain ez  
da hainbeste bereizten. Baina, hala ere, pijoak beti  
desberdin janzten dira.

Hala izango da.

Nik ez dakit zein moda izango den,  
baina eskaparateetan ikusten dena  
izango dela pentsatzen dut, ezta?

Nik uste modako arropa, azken finean  
denok janzten dugula, dendetan  
besterik ez dutenez saltzen, zer  
erremedio!!



- Ondoren, inkesta entzun eta elkarrizketatuek eman dituzten iritziei eta usteei erreparatu. Jarraian, irakurri ondoko erantzunak eta azpimarratu erantzun horietan dauden okerrak. Gero, bikoteka alderatu egindako lana. Eta bukatzeko, inkesta berriro entzungo dugu okerrak antzemateko.

1. Nik behintzat ikusi eta gustatu egin zaidalako jarri nuen. Baina egia da gazte gehienak desberdin janzten garela. Lehen ez zen bereizten, punkiak, pijoak, Heavyak,... denak berdinak ziren. Orain ez. Baina hala ere, pijoak beti desberdin janzten dira.

2. Egia esan gustuko arropa janztea gustatzen zait, eta modakoa izan ala ez berdin zait. Modatik kanpoko ere janzten dut.

3. Modaz interesa inork ez daukagu. Batzuk esaten dute moda ez zaiela interesatzen, baina gero denok izugarritzko garrantzia ematen diogu itxurari eta janzteko moduari.

4. Nik uste modako arropa, azken finean denok janzten dugula, nahiz eta dendetan denetik saltzen duten, zer erremedio!

5. Nik ez dakit zein moda izango den, baina Afrikan ikusten dena izango dela pentsatzen dut, ezta?



6. Nik entzun dut "heavy"en estiloko arropak etorriko direla, baina gero eskaparateetan ez da hainbeste ikusten.

7. Hainbeste ez dut ulertzen, baina nik uste dut kolore ilunak direla udan ematen direnak. Eta beti bezala tela lodiak, azken urteetan linua oso modan dago eta aurten ere asko ikusiko dela pentsatzen dut.

8. Ez, urtero ez!! Bestela.....! Ezin dugu urtero arropa berdinarekin ibili. Normalean, gure etxean, behintzat, uda batean erosten den arropa bi urtez edo hiru urtez behin aldatzen da.

- Elkarrizketatuek iritzia eta gustuak adierazteko erabili dituzten forma batzuk ez dira egokiak. Ordezkatu horiek, egokiak diren beste batzuekin.

"Nik ez dakit nola janzten naizen. Niri gustatzen zaidan arroparekin eta kito (1)".

"Modaz interesa denok daukagu. Batzuek esaten dute moda ez zaiela interesatzen, baina gero (2) denok izugarritzko garrantzia ematen diogu itxurari eta janzteko moduari".

"Hainbeste ez dut ulertzen, baina nik uste dut (3) kolore biziak direla (4) udan ematen direnak. Eta beti bezala tela finak, azken urteetan linua oso modan dago eta aurten ere asko ikusiko dela pentsatzen dut".

"Moda aldatu edo ez, nire ustez (5), moda guk egiten dugu edo guk jartzen dugu, ezta?"

"Egia esan (6) gustuko arropa janztea gustatzen zait (7), eta modakoa izan ala ez berdin zait, baina beno, modatik kanpoko ezer ez dudala janzten uste dut (8)."

"Nik uste (9) modako arropa, azken finean denok janzten dugula dendetan besterik ez dutenez saltzen, zer erremedio! (10)





- Borobil bat jarri aukeratu duzun forman.

- |  |  |
|--|--|
| <p>1. a. eta ez beste<br/>b. eta besterik ez<br/>c. eta besterik</p> <p>2. a. gero, ordea,<br/>b. baina tira<br/>c. tira eta tira</p> <p>3. a. nik ustez<br/>b. nire uste<br/>c. nik uste</p> <p>4. a. ditugula<br/>b. dela<br/>c. dituzula</p> <p>5. a. ustea da<br/>b. iritziko ustean<br/>c. nire iritziz</p> | <p>6. a. egia esatea nahi baduzu<br/>b. egia esan nahi dut<br/>c. egia esanda ere</p> <p>7. a. gustoko dut<br/>b. gustuko dut<br/>c. nire iritziz</p> <p>8. a. nik ustea da<br/>b. iritziko dut<br/>c. pentsatzen dut</p> <p>9. a. nik ustea da<br/>b. nire ustez<br/>c. nire iritziz</p> <p>10. a. ez dugu beste erremediorik<br/>b. erremedioa da<br/>c. zer erremedioak</p> |
|--|--|



- Kazetaritza-lana egiteko garaia iritsi zaizue orain: Entzugaian bezalako galdetegi labur bat prestatu behar duzue ikaskideen gustuak eta iritziak jakiteko.

1

Horretarako, bikotekide bat bilatu. Bion artean aukeratu nahi duzuen gaia eta idatzi galderak.

1. ....
2. ....
3. ....
4. ....

2

- Orain beste bikote batekin elkartu, elkarri galdetu prestatu dituzuen galderak, eta erantzun zuen iritziak eta usteak emanaz.
- Erantzun horietako bi idatziz jaso.
- Idatziz jaso dituzuen erantzunak irakurri beste guztiei, baina ez esan norik erantzun duen. Ea asmatzen duten norena den erantzuna.

Ikaslearen erantzuna:

.....

.....

.....

.....

Ikaslearen erantzuna:

.....

.....

.....

.....

3

- Bukatzeko, bikoteka alderatu entzugaiko erantzunak eta zuenak:
- Erantzuterakoan isilune asko egin al dituzue?
- Bat-batean erantzun duzue, ala pentsatu egin al duzue hitz egin aurretik?
- Iritzia emateko forma bereziren bat erabili al duzue?
- Zein?

- Ikasle bakoitzak nahi duen pertsonaia aukeratu, eta haren paperean jarrita, modari buruzko azalpenak, gustuak eta iritziak eman ditzala. Aukeran dituzue bai egoerak, eta baita pertsonaiak ere.

## EGOERAK

Kafea hartzeko arratsaldero elkartzen zareten hiru emakume zarete. Gaur zuetako baten semea hurbildu zaizue . Hizketan hasi eta modaren gaia atera da.

Familiakoak zarete eta afalostean telebistan moda desfile bat ikusten ari zarete. Hori dela eta modari buruz hasi zarete eztabaidatzen.

Lantokian zaudete eta irratia piztuta duzue. Denok entzun duzue moda dela eta kalean egin duten inkesta . Hori dela eta berehala hizketan hasi zarete.



## PERTSONAIAK

- Pertsonaia hauen paperean jarrita, eman modari buruz zuen iritzi eta gustuen berri. Nahi baduzue, pertsonaia gehiago sartu.

### AMAIA...

Amaia duzu izena. 35 urte dituzu. Modari jarraitzen diozu eta oso ondo dakizu aurtengo denboraldian zer eramango den. Gainerakoek baino gehiago dakizula erakutsi nahi duzu jendearen aurrean.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### MIKEL...

Mikel duzu izena. 20 urte dituzu. Moda izugarri interesatzen zaizu, eta gazteen moda nolakoa den oso ondo dakizu; joe-rak,... Baina lotsa ematen dizu hori aitor-tzeak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### JUAN LUIS...

Juan luis duzu izena. 50 urte dituzu. Modaz ez duzu ezer ulertzen eta ez zaizu gehiegi interesatzen. Halere dena ulertu-ko duzunaren itxura egin eta interes han-dia jarriko duzu, jendearen aurrean itxura ona emateagatik.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

### ARANTXA...

Arantxa duzu izena. 62 urte dituzu. Moda ez zaizu interesatzen. Edozein arropa janzteko ohitura duzu. Baina beti zure estilo propioa mantendu duzu; eroso eta txukun janztea gustatzen zaizu.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

- Irratian etorkizuneko arropa nolakoa izango den azaldu du kazetari batek. Entzun eta hark esandakoaz duzuen iritzia adierazi denen aurrean.

## 1. AUTOEBALUAZIO-ORRIA

■ Zein atazatan ibili zara gustuen? Zergatik?

.....  
.....

■ Bi esaldi hauek zehar estilora pasa:

.....  
.....

1- Sarak esan du: ni etzi zurekin joango naiz ongi baderitzozu.

2- Iñakik dio: geuk zer egitea nahi duzu?

.....

■ Zuk gustukoena duzun janzteko eta apaintzeko era hiru lerrotan idatzi:

.....  
.....

■ Lihoaren prozesuko atal bat hiru lerrotan azaldu:

.....  
.....  
.....

■ Denborazko loturak zeintzuk diren ba al dakizu? Idatzi batzuk:

.....  
.....

# OHARRAK

A series of 25 horizontal dotted lines for writing, arranged in a light gray rectangular area. The lines are evenly spaced and extend across the width of the page.

# OHARRAK

A series of 25 horizontal dotted lines, evenly spaced, intended for writing. The lines are dark blue and extend across the width of the page.



# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**



ISBN: 84-95827-74-3



9 788495 827746